# AGINTARIAK ETA LANGILEAK

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### SEGURTASUN SAILA

### 4713

*EBAZPENA, 2025eko urriaren 20koa, Segurtasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez iragartzen baita noiz argitaratuko den Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean 2025eko urriaren 20ko Ebazpena, Ertzaintzaren ikuskapen-eskalako ofizial kategoriako karrerako funtzionario izendatzen duena.*

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren 2024ko uztailaren 30eko Ebazpenaren hamazazpigarren oinarrian ezarritakoarekin bat etorriz (ebazpen horren bidez, Ertzaintzaren ikuskapen-eskalako ofizial kategorian sartzeko hautaketa-prozedurarako deialdia egiten da; uztailaren 30eko EHAA, 165. zk.), eta Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 318/2024 Dekretuaren 9. artikuluak ematen dizkidan eskumenen arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jakitera ematea 2025eko urriaren 20an jarri dela Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-taulan Segurtasuneko sailburuordearen 2025eko urriaren 20ko Ebazpena, Ertzaintzaren ikuskapen-eskalako ofizial kategoriako karrerako funtzionarioak izendatzen dituena.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 20a.

Segurtasuneko sailburuordea,
RICARDO ITUARTE AZPIAZU.